

mendia ▸ IBILBIDEAK

Ebro ibaiari segika
Lapuebla de Labarca,
Fuenmayor, Cenicero eta
Eltziego lotuko ditugu

JOSEAN GIL-GARCIA

Ebro ibaiaren ertzak zidor komun batean lotzeko egitasmoak urte batzuk baditu ere, egokitze lanaren hasiera ofiziala 2006an suertatu zen. GR 99 kodea aukeratu da Fontibren (Kantabria) hasi eta Garxalgo Faroan (Tarragona) bukatuko den ibilbidea izendatzeko. Mila kilometrotik gora baitira guztira, ordea, erritmo guztietakoak gertatzen ari dira komunitate bakoitzeko parteak egokitzeko orduan. Araba eta Errioxa burubelarri aritu direnez azkenaldian, oso aurreratuak dituzte lan horiek. Gero proposatzen den ibilbideak ibaia korritzen duten bi zati lotuko ditu, baita lau herri dotore ere.

BUICIOKO IBAR-BASOA. Errioxako Lapuebla de Labarca herrian hasiko dugu ibilbidea. Herrira iristean, Fuenmayorrera doan errepideari jarraitu eta Ebro ibaia zeharkatzen duen begi bakardun zubia modernora iritsiko gara. Ibaia zeharkatuta, Errioxako Autonomia Erkidegoan sartuko gara. Errepidean aurrera egingo dugu Geltokiko auzoraino. Trenbide azpitik igaro eta AGE upelategia igaro bezain pronto, eskuinera joko dugu upelategi bereko atzealdera doan pista asfaltatutik. Nekazari bide bati ekingo diogu gero, eta hegoaldera egingo dugu.

Fuenmayor herria aurrez aurre dugula, harantz bideratuko ditugu pausoak. Mahatsoak lagun, txalet baten aurrean izango gara berehalakoan. Horko bidegurutzean, eskuinera egingo dugu. Aurrerago, Peña Gordara bidea bazter eginda, ezkerreara hartu eta errepide estu batetik segituko dugu. Hiru minuturen buruan, eskuinera joko dugu porlanezko bidetik; Fuenmayorretik datorren GR 99 Ebroren zidorra izena duen bidearekin bat egingo dugu, eta mendebaldera egiteko unea izango da. Ibar zabalean gainta gabiltza, Buicio uhartea eta ibar-basoa helburu dituen bideari men egingez. San Llorenteko erpin geodesi-

GR 99 Ebroren zidorrak mila kilometrotik gora ditu, eta Arabatik eta Nafarroatik pasatzen da




GR 99 zidorra lagun, Ebro ibaia aurkituko dugu. JOSEAN GIL-GARCIA

Ebro ibaia, naturaz blai

Erreferentziak

- 00:00 Lapuebla de Labarca
- 00:50 Buicio uhartea
- 01:15 Montecillo harrobia
- 02:20 Eltziego
- 03:25 Esperal atsedenekua
- 04:00 Lapuebla de Labarca




Desnibela 100 m
Zailtasuna
Luzera 19 km
Denbora 4 ordu



koa muino baten gainean ikusten dugun arren, talai horren azpitik igaro eta trenbidera iritsiko gara. Trenbidea kontu handiz gurutzatu eta gero, Ebro ibaiaren ertzeantze egingo dugu. Lau bideren elkargune batean, norabideari heldzen jarraitzen duen partzelariatik segituko dugu. Buicio uhartera eta ibar-basora doan zubira iritsiko gara. Errioxako interesdun leku bilakatu da Buicio, behialako ibar-landaretzaren lekuko ona delako. Uhartean lizarrak, zumarrak, makalak, haltzak eta sahasak ikus daitezke, besteak beste.

ELTZIEGOTIK ESPERALERA. Buicioko zubitik gertu, ezkerreara hartu eta LAN upelategiaren atzealdera joko dugu. Industrialdera iritsita, trenbidea zeharkatuko dugu berriz. Hantxe eskuinera eginda, errailen paraleloan segituko dugu Cenicerora doan zidorra gogaide. Asfaltoari hertsiki lotuta, Montecillo harrobiraino jarraituko dugu. Trenbidearen konpainian segituz, hots, Valpiedra etxe paretik igaro eta zortzi minutura, GR 99 zidorretik irtengo gara. Trenbidea zeharkatuko dugu han, eta ondoko errepidetxoan aurrera egingo dugu pitin batean. Eskuinetik irtengo den lehen nekazari bideari ekingo diogu gero. Uren araztegiaren ondotik igarota, Eltziegoko zubira doan errepidean izango gara. Bost begi dituen XIX. mendeko zubi horretatik igaro eta Eltziegora doan errepidetik jarraituko dugu. San Vicente baseliza muino baten gainean dugula eta luxu handiko Marques de Riscal hotelari begira gaudela, herri gunean sartuko gara.

Lapuebla de Labarcara doan errepidetik jarraituko dugu. Aldapatxo bat igo bezain laster, eskuinera jo eta Ebroarantz zuzen-zuzen doan errepidetxo bati ekingo diogu. Asfalto amaitez, ezkerretik segitu eta ezpona baten azpitik igaroko gara. Ezpona atzean utzi eta, berehala, etxe baten hondakinak ikusiko ditugu. Aurrerago dagoen bidegurutzean, eskuinekoa hobetsiko dugu Ebrotik hurbilen doan pista zabaletik jarraitze aldera. Gorantz jotzen duen errepidetxo bat ikusiko dugu aurrerago. Bide hura baztertuz eta eskuinera joz, paseo goxoa egingo dugu korrontetik hurbil. Makalen artean ibili-ibilian, Esperal-Poveda atsedenekura iritsiko gara. Hegoaldera egingo dugu atsedenekuan. Ebro ibaiaren gaineko bista ederrak hartuta iritsiko gara Lapueblara.



Eguraldiak eragina du zure bizitzan. Toki bakoitzeko eguraktiaren berri zehatza izatea oso mesedegarri izan liteke zuretzat. Gure herriko informazio meteorologiko guztia aurkitzeko

www.euskalmet.net

